

Nafarroako Esaera Zaharrak. Ezkurra.

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Ezkurra.

- 1513 *Aizak zurie, aizak gorrie: zelatan dagonari, atera zaiok begie.*
Sorgin edo lamiñen kontuetako itzak dire oiek. Ikus: José Miguel de Barandiarán, Eusko-Folklore. Obras completas, tomo II, págs. 165 ss.: "Aide txurie, aide gorrie".
- 1514 *Artoak ontzeko erein bear dire garagarrillean: guk erein genttun (genittun) uztan: orregatik gelditu ziren ez buru ta ez buztan.*
- 1515 *Aurreak erakutsiko du, atzeak nola dantzatu.*
Asko lekutan olatsu.
- 1516 *Bagindu, bagendukike.*
Gauza nai, ta ez izan ordea.
- 1517 *Bereak beretzat, besteenak erdibana.*
Ala ere! erdia bedere uzten dio besteari!
- 1518 *Eguberritan ilbera: iotez ilberri.*
Iote = iñauteri.
- 1519 *Elur gañetik eldu zen egoak, urkabeen zegona ikaratu emen zu(e)n.*
Alako aldi batzutan, urak bazter guziak eramán dituelako. Ortik urkatuaren beldurra!
- 1520 *Elur-urte, arto-urte.*
- 1521 *Errotan beta, bidean trota.*
"Errotan lasa, bidean presa".
- 1522 *Etxeko sua, etxeko autsez estali bear da.*
Oihenart-ek ere: "Etxeko sua etxeko hautsaz estal".
- 1523 *Etxe utse, gerra utse.*
Oihenart-ek: "Etxe hutsa, aharra hutsa" (171).
- 1524 *Ez du mingañean aririk.*
Itzontzia, edo baita ere iztun ona da.
- 1525 *Idiak min, guardiak soñu.*
Ixillik egon bear lukena, ori oiuka. Oihenart-ek: "Idiak erasi beharrean, gurdia" (273).

- 1526 *Itxure ona da, baño probetxo obea.*
Bai jendetan bai gauzetan maiz.
- 1527 *Martina karrikari, beti ola bayabil, ez diñat urrikari.*
Berak bere burua galtzen duena ez dugu urrikari.
- 1528 *Negarrez yaio, ta negarrez il.*
Orixe da guzion izanera.
- 1529 *Nunu-makil-urte, arto-urte.*
Nunu = basa-landare, makilla luzea duen bat. Izen asko ditu euskeraz: anbulu, kukulumurru, unanu, basaporru, otsapurru.
- 1530 *Sagar ustel batek saski sagarra ustelduko.*
Kristau lotsagabe bat aski de edozein gaiztakerien kutsua edatzeko.
- 1531 *Sasian yaioak sasian nai; gure mandokoak ez du etxera nai.*
Olatsu beste lekuetan ere.
- 1532 *Zenbat ate, anbat maratille.*
Lenago ere atera zaigu esaera au.
- 1533 *Zenbat Mari izan, ainbeste Peru.*
Ergelak ergela aurkitzen.
- 1534 *Zor ona baño artzeko txarra obe.*